

Beste biolentzia

El Mundo del País Vasco, 1991-06-21.

Gure artean ere ba da berezko den izurririk. Lehen bestenak usnatzen genituen berehala, askotan makurki, eta egiatan geuri zegozkigunak ez. Auzokoari iratxekitzeko errazkeria hau ez da geurea bakarrik baina geurea ere ba badela aitortu behar.

Azken hauteskundetako izurritea lekuko.

Bi urte barru osatuko da Sabin Aranak "Larrazabal"-eko afariarekin (1893) Aberriaren aldeko ekintza sortu zuela; bere jarraitzaileok ez genuen gaur ofizialki berea den Alderdiagandik honelakorik espero: Sabinen arnasa eskusiban dutela aldarrikatzen dutenek alderdi espainolekin bat egin dute, gainontzeko alderdi abertzaleen aurka, anaia anaiaaren kontra; hauteskunde hauetan erabili duen alkimia zoroaren ondoren, boto garbien poderioz irabazi duten partidu euskaldun batzuk galdu egin dute, aukeratuak izan diren gizonak ez dira karguetarako izendatuak izan; aitzitik, atzean geratutako espainolak izan dira nagusitu direnak eta Gipuzkoako Diputazio eta udaletan fidantza guztiaz jarriak. Desordenu suntsigarri honek hautsi du Euskal Herriak oraindik Politikagandik espero zuena, eta herri bezala geure kabuz aurrera irteteko justiziaz genuen fedea.

Begira zeren truke: Sartu digute, Madrileko PSOEn preponentzia eta ustelkeria eta PPren mutur beltzarekin (ezker-eskuineko nazionalista espainolakin) berauek bizi duten izurri lotsagabea Aitaren Etxeko sukalde eta komunik ezkukuraino.

Hemendik aurrera botoen orde, zer? Egin duten beste hau ere biolentzia baita!!